

# DIRU-ITURRIAK

Enpresa bat sortzeko garaian funtsezko faktore bat da dirua eta diru sarrerak edukitzea. Flurreikus beharreko beste faktore bat iruditzen zaigu zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo diren geure bezeroak, baina, ekonomikoki laguntza bat eskaintzen ari garenez guretzako abantaila bat dela iruditzen zaigu. Beraz, alde horretatik lasai egon gaitzke.



Bi diru sarrera mota aurreikus ditzakegu, ordainketa bakarrekoak eta errepikariak. Biak dira oso garrantzitsuak, baina, errepikariak gehien bat, nolabaiteko segurtasuna ematen bait dute. Hau da, hilabetero diru kopuru bat zihurtatzen digute.

Geure diru iturri bakarra oraingoz, jostailuen salmeta izango da, baina, diru sarrera hauek oso ezberdinak izan daitezke. Ez da berdina erosketa pribatu bat egitea, hau da, produktuaren banakako salmenta edo enpresa edo erakunderen batek egindako erosketa. Erosketa pribatua bada, diru kopurua txikia izango da, beraz, ordainketa bakarrekoak kontsidera ditzakegu. Baina aldiz, enpresa edo erakunde batek egindakoa bada, produktu kantitate handia izateaz gain, diru kantitatea ere nabarmen igoko da. Horrelako kasuetan ordainketa errepikariak egiteko aukera zabalduko da eta horrek bezeroei lasaitasun bat emateaz gain, lehen esan bezala geuri hilabetero diru sarrerak zihurtatzen dizkigu.

Gure proiektu honek ez du hasierako inbertsio garrantzitsurik behar, aurreikus ditzakegun gastuak alokairua, lan erremintak eta geure soldatak izango lirateke. Geure soldatekin pixka bat joka dezakegu, geu baikara jabeak eta hasiera batean soldata handiak ez edukitzea modu batean edo bestean, normaltzat jo baitezakegu.

Hasiera batean mailegurik ez dugu aurreikusten, geure aurrezkiekin molda baikaitezke eta gastu finkoak hurrengo hauek kontsideratzen ditugu:

- Lokalaren alokairua
- Segurua
- Arria eta ura
- Zergak (BEZa, zaborrarena...)

